

Vidkun viña

TXILLARDEGI



delakoaren Goicoechea herri zafatu honek mundura zuenez geroztik, lasterketa galanta sortu da zipaioen eta harkien artean. Hautaketa zaila, zorigaitzez. Desohoreako kandidatoak ez baitira urri.

Orain, osteguneko arrastirian irratizko berriak, odola irakiten, entzuten ditudan honetan, tristura eta lotsa senditu dut batera.

«Ya están en España los tres terroristas» errepikatzen da behin eta berri.

Montevideo, harrigarriko ekinaldian, estradizioa ekiditen saiatu dira uruguayarrak. Eskuindarrez beste uruguayarrak zehazkiago. Bilbon eta Iruñean lore-sortak pasatu dituzte deportatuen senitartekoak.

Artean Goitia, Lizarralde eta Ibañez, gosegari opporak astindurik, 'Españain' daude. Bapo!

Jon Idigoras Deputatua, 'La Trainera' jate-txean harrapatutik, bota egin dute Uruguaytik.

Eta uruguayarrek berek, odoletan ordaindu dute solidaritza hori: hiru hildako gutxienez (beste 3 edo 4 gutxienez Montevideoko 'morgan'), 'ehundaka' zauritu (balaz batzuk), berrehun bai atxilotu gutxienez.

'El Corregidor Español en Vascongadas' (zer 'Lendakari', eta ze debru: ez ditzagun euskal hitzak lardaska!), el 'Delegado Español para Asuntos Vasco-Norteños', Señor Vidkun Viña, pozik agertu da: 'normala' omen da Estatu 'demokratikoaren' artean estradizio-erregela errespetatzea. Los tres españoles de Montevideo, a España. Normal.

'Señor Viña-rena' ez da erratua. Azkueren Hiztegia, 60. orrialdean, hau irakur daiteke: «Ardanza = viña». Eta Lendacariak badu garaia bere deitura 'normalizatzeak'.

'Vidkun-ena', berriz, merezimu pertsonalez irabaztu du: Quisling norvegiar kolaborazionista famatuaren izen-txikia Vidkun baitzen. Eta egun hauetan, berriro ere, maila bera duela erakutsi baitu garbi.

Irakurleak ez daki, noski, Quisling-ek nola amaitu zituen bere egunak. Baina aisa ikas dezake.

Isil nadin, bezaz.

Turismoaren ilusioa!

XAN KOSKARAT



UDA bukatzerat doa, hunekin batera kanpotiarrak badoatzi. Ainitis herrietako bestak eta animazioak ixildu dira. Adibidez, Donibane Garazin, uztailearen letik abuztuaren bukaera arte, egunero, zerbitu baldin bazen, irailaren 1tik goiti ez da gehiago tutik izanen... Iduzki, opor ala udako harat hunatek liluratsen bagaituzte ere, gure baitan halako ilundura bat senditzen dugu. Saltegiatiko zeinbat diru kutxa beterik baldin badira, geroari begira nekeziak agertzen zauzkigu. Udazkene-ko lehen egunetan sendituko ditugu neke ekonomikoak, langabezia, kultur eta hizkuntz arrangurak, etabar...

Gure politikeroek oraindik bidez aldatzeko gogorik ez dute. Duela 20 bat urte, estadoko MIACA erakundearen bidez plantatu turismoaren bidea indartzea doatzi. Orain, lehengo proiektoren bultzatzeak, Europatik dator diru-laguntzak. Lekuko hor ditugu LEADER ala PCD 'Projet Collectif de Developpement' delakoak. Turismo alorretik daukate aterabide bakarra, ondorioak iparraldearentzat desertifikazioa, euskal izatearen ukatzea, beste eremu ekonomikoan itotzea, direlarik. Itxaropen gutti dator hortik.

Egun hauetan, Donibane Lohitzuneko alkateak, gaitetxea deitu lokaletik, herriko gaitzek haizatu nahi ditu. Zurumurruek diote etxegin-tza inguruko ala turismoari lotutako zerbitu haundiren egiteko asmoa daukela. Hortako omen du etxea bereganatu behar. Beteri berdin: turismoa lehen, herritarrak azken.

● Eufata.

Intxaurragari erantzuna

Sabin Intxaurraga EAko buruzagi aski ezagunak egin berri du komunikabideetan benetako manifestu bat EA eta HBren hurbilketa politikoaren alde (ikus abuztuaren 20ko EGUNKARIAN 'Ezkerreko abertzaleen batasuna'). Gutxi eza-gutzen dut Intxaurraga, zoritza-rez, nahiz eta berarekin mintzatzeko aukera izan dudun zen-baitetan. Baina jarraitu ahal izan dut, *grosso modo*, bere eboluzio politikoa. Eta uste dut ziurta dezakedala zalantzarik gabe Zea-nuriko alkatea abertzale dela. Hau da, independista.

Intxaurraga oso kezkatu ageri da Euskal Herriko egoera politikokoaren aurrean. Esan daiteke exageratu gabe: EAJren eten-gabeko traizioak sorturiko kaos-aren aurrean. Intxaurragak uste du (eta arrazoi du gure ustez) gure herriaren nazio askapene-rako EAJrekin kontatzen jarraitzea denbora gaitzea dela. Ez da gutxi, zeren eta behin eta berriz esaten baita, geure lerroetan bertan ere, «hiru» zutabe politiko abertzaleak EAJ, EA eta HB direla.

Baina, gure iritzirako —eta EAko buruzagiarekiko errespeturik handienarekin diot hau—



MANU/DEIA

puntu minimoen zerrenda ez da oso arrazoizkoa. Dio, EAren ohiko *leitmotiv*-ari jarraiki, helburu politikoak lortzeko indarkeria alde bat utzi behar dela («indarkeria alboratu», irakur daiteke, «independentzia lortzeko»). Alabaina, eta oso zoritza-rez, nazio askapeneko mugimenduen analisiak, Europa-koena barne, erakusten du aska-pen horretarako ohiko bidea borroka armatua izan dela. Nazioa askatzeko borondatea eta estatuaren kontrako biolentzia-ren gaitzespena antinomia hutsa dira.

Gainera, gure eskubide nazionalak deuseztuak izan dira hiru gerra odolitsuren ondoren, 1839an, 1876an eta 1937an. Ez da oso begi-bistakoa horien berreskuratzeko kongresu eukaristiko-aren bidez edo deklarazio aka-demikoen bidez etortzea. Zoritza-rez.

EGUNKARIAN idatzi dut, orain

bi aste, bigarren Karlistadaren amaiera, duela mende bat, zampaketa militar hutsaren bidez etorri zela, 30.000 bolondres karlistak Espainiako armada erregularrako 120.000 solda-duek garaitu baitzituzten, Concha jeneralaren agindura; eta oraindik ere badu Bilboko erdi-ko kale bat bere izenari, 1876ko 'askapena' oharatzeko. Karli-ten bataioietako % 80 euskal-dunak ziren, 1839an bezala.

Pena da bestalde, herenegun Intxaurraga jauna ikusteko ohorea ez izana, Donostiako Morlans auzoan, ETAko hiru kideen heriotza gogoratzen. Jakin berri dugu 'terroristen' inguratze ez akademikotik bizirik atera zen pertsona bakarrak, Eugenia Muñagorrik (ez dute oraindik epaitu 1991n atxilotu ondoren ETAko militanteak etxean hartzeagatik) minbizia harrapatu duela espetxean da-raman denboran.

'Distantzia-haltze asimetri-ko' hau ez zaigu oso lagungarri iruditzen HB-EA akordioarako. Zeren eta EAJrekiko alde ez baita, Intxaurraga gora-behera, oso erreala: ikus 'Albistur afe-ra'.

Jakina, oso posible da ETA-ren alde bateko tregua urrats po-sitiboa izatea *impasse*-tik ateratzeko. Baina tregua ezin izan daiteke, arrazoiz, abertzaleen arteko akordio taktikoa besterik. Orobat, beste tregua, ideologi-koa, ezin da izan aurretiko bat baizik abertzaleen artean bilatu beharkeko helburu bat. Aurretiko bakarra da autodetermina-ziorako korrante garaitezina el-karrekin antolatzea konpro-metitzea.

Eta ziur nago Sabin Intxa-urraga bezalako pertsonak lagun dezaketela eta lagundu behar dutela horren loratzean eta antolatzean.

TXILLARDEGI

ZUZENDARIARI

Merkealdiak Azpilagañako euskaltegia

Ekainaren 30ean, ikasturte bukaerarekin batera Administrazioak erabaki zuen Nafarroako Euskaltegi 12 irakasle ebentualak kalera botatzea, behin behinoko izaeraz jarraitzea ezinezkoa zela argudiatuz. Hamabi irakasle hauek euskaltegi plantila erdia osatzen zuten, euskaltegia de-seguitratuta gelditu zelarik.

94-95 ikasturteko beharrei erantzuteko gutxienez 24 irakasle beharrezko ditugu eta uste honetako egoera hauze da:

— 12 irakasle behin-betiko izaeran.

— 6 irakasle EGAdun, Hezkuntza Depar-tamentutik zerbitzu komisio bidez irailen etorriko direnak. Hauek Nafarroako Admi-nistrazioiko langileoko euskalduntzeko Pro-grama garatzeko gaitasuna erakutsi behar izan zuten oposaketa baten bidez.

— Eta beste irakasleak?

Udako merkealdien gisara Administrazio-ak esan digu etorriko diren beste 6 irak-asle horiek ez dutela deus demostratu be-harrik, inongo frogarik gabe eta EGA titu-luarekin zuzen-zuzenean gure lanpostuak har ditzaketela.

Horrexegatik Euskaltegi langileok Administrazioiko sindikatuekin batera salatu nahi dugu:

— Euskara eta Langileen Euskalduntze-arekiko etengabeko partxoak Administrazioaren aldetik; irakasle hauek bota, beste hauek sartu; zuek atzerketa egin behar du-ze, baina zuek ez, ez; batzuei esango diet euskaltegiaren etorkizunak kezkatzen nauela baina gero ez dut deus eginen.

Nahikoa da hambeste esan eta ez egin, ondoren nahi duzuen egiteko!

Atera itazue behar diren lanpostuak OPERA, goazen Euskaltegia kontsolidatzea eta egin dezagun lana behar den bezala Ad-ministrazioa Euskalduntzeko.

AZPILAGAÑAKO IRAKASLEAK

Iruñea


GAIA JARRITA



Oporren itzulera

Oporrak bukatuta horra itzulera, jai daukaguna dugu lehengo abelera. Burua makurtuta berriro lanera, etsipenez goruntza, ilusioz behera, sakelaren pixua arinduz batera.

XANTI ZABALA 'LEXO'



Batzorde Patekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDI: IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URUA

Gerentse: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZABARRETA

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabliuak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egokiza soziala, Publizitate eta Administrazio: Antso Jakina, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irmitzi dorrea) / 51011 Iruñea / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzuru Eparantzua, 2-1. ezkerre / 48003 Bilbo / ☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/ 503 Posta kutxatila / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11